

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure proiektua aurrera eramateko funtsezko jarduera batzuk egin behar ditugu. Bideo bat egin behar dugu jendeak gure proiektua ezagutzeko eta boluntario bezala aurkezteko. Horretarako publizitate kanpaina handia egin behar dugu batez ere sare sozialen bidez. Kanpaina honen bidez sozietatea kontzientziatu nahi dugu, gure proiektuarekin bat egiteko.

Publizitate kanpaina egin ondoren, udaletxeari eskaera zuzena egingo genioke gure proiektua finantziatzeko, horretarako, memoria bat egingo genuke eta udaletxeari aurkeztuko genioke. Memoria hartan gure proposamena expikatuko genuke eta zenbat

jende egongo litzake prest gure proiektuarekin lana egiteko. Baita ere beste erakunde batzuekin hitz egingo genuke finantziazio gehiago lortzeko; Gipuzkoako Foru Aldundiarekin edota Eusko Jaurlaritzarekin. Diru sarrerak lortzeko, hainbat enpreseekin bilduko ginateke gure proiektuaren zati bat haiek finantziatzeko. Gainera, beste erakunde batzuekin bilduko ginateke gure kostuak murrizteko, adibidez, UPV-rekin aplikazioa programatzeko eta egiteko. Gainera gure boluntarioen artean giro ona sortu nahi dugu eta haien lagunekin lan egiteko aukera emango diegu.